



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

OZ-2. OBRA TXIKIETARAKO LIZENTZIA

Zer da / Zertarako da

Barrualdeko edo kanpoaldeko lanak, soiltasun teknikokoak eta garrantzi gutxikoak eraikuntza eta kostua aldetik, etxebizitzaren eta lokalen bolumena, erabilera objektiboa eta kopurua aldatzen ez dutenak, eta eraginik ez dutenak ez egitura nagusian, ez arkitektura-eraketan, ez eta eraikin edo instalazioaren bizigarritasun- edo segurtasun-baldintzetan ere.

Esate baterako: barrualdeko hutsuneak aldatzea, banaketa aldatzea, leihoak aldatzea, ur-hartuneak egitea, toldo eta idazkunak jartzea, fatxadak konpontzea, teilatua konpontzea, zangak irekitzea eta abar.

Nork eska dezake

Edozein pertsonak edo haren legezko ordezkariak.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera-orria.
- Eskatzailearen NANA, (jabekideen izenean eginez gero, komunitadearen IFZ)
- Aurrekontua, oinarrizko partidak banakatuta.
- Udal teknikariak obra ulergarri egingo duen krokis bat eska dezake.
- Etxebizitza edo lokalen barruko banaketa aldatzen bada, eraberritze-lanen, gaur egungo egoeraren eta etorkizuneko egoeraren plano ulergarriak aurkeztuko dira (1:50 eskala).
- Horrez gainera:

a) ESTALKIAK ETA/EDO FATXADAK KONPONTZEA

- Proiektua baldin badago: Segurtasunari buruzko proiektu teknikoa sinatua eta obra hastear dagoenean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak emandako lantoki-irekitzearen agiriaren kopia
- Proiekturik ez badago: Arriskuen ebaluazioa eta obra hastear dagoenean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak emandako lantoki-irekitzearen agiriaren kopia



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

b) TOLDOAK, IDAZKUNAK ETA ANTZEKOAK JARTZEA

- Krokisa
- Toldoaren, idazkunaren edo antzekoen neurriak.
- Etxebizitza bada, bizilagunen elkartearen adostasuna.

c) FINKAK IXTEA: ITXITURAK, ALANBRE-HESIAK ETA HORMAK

- Gaur egungo eta etorkizuneko egoeraren plano edo krokis kotatua.
- Aldameneko jabeen adostasuna.

d) KANALIZAZIOAK ETA KONEXIOAK (URA, ARGIA, TELEFONIA, GASA)

- Krokisa
- Zangaren neurriak.

Non aurkeztu behar da

Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean: San Bartolome 2, 20400 Ibarra, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara

OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi izanez gero, ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Hitz ordua ordutegi zabalagoan emateko aukera ematen da. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna.

Hitz ordua eskatzeko: 943697321 edo ibasabe@ibarra.eus

Zenbat kostatzen da

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga (arrekontuaren gaineko %, BEZ kanpo)

Eraikuntza, instalazio edo obra tasa orokorra.....%4,5

Oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak.....Salbuetsita

Tasak

Obra txikiak 6.010,12 € arte.....18,49 €

Obra txikiak 6.010,12 €tik gora.....61,10 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Araudi aplikagarria

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 207. artikulua eta hurrengoak (EHAA, 138 zk., 2006/07/20).
- Indarrean dagoen udal plangintza.

Prozeduraren epea

Zenbatetsitako epea: Bi aste

Legezko gehieneko epea: 3 hilabete

OHARRAK

1. Bide publikoa edukiontziekin edo elementu lagungarriekin okupatu behar izanez gero, dagokion baimena eskatu beharko da. (ikus [OZ-3 izapidea](#)).
2. Udalak egokitzat jotzen dituen obra-ikuskapen guztiak egin ahalko ditu.